



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2021IPL0002

Eguna: 2021-02-23

Ordua: 19:00 – 19:31

Tokia: Areto Nagusian

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV (**8. aztergai**)
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk ORDEN DEL DIA	
2021eko urtarrilaren 26ko aktaren onarpena.	1	Aprobación del acta de 26 de enero de 2021.
Lanpostuen zerrendaren zati bat aldatzea	2	Modificación parcial de la relación de puestos de trabajo
Kirol instalazioetako kudeaketa kontratuaren luzapena.	3	Prorroga del contrato de gestion de las instalaciones deportivas.
Arrobitxulon hiri-igogailu bat jartzeko obren kontratazio-espeditzea.	4	Expediente de contratación de obras para instalar un ascensor urbano en Arrobitxulo.
Astigarragako HAPOko HEA 22ko "Ubarburu Zabalpena"*ren aldaketa puntuala. Behin behineko onarpena.	5	Modificación puntual del AIU 22 "Ubarburu Zabalpena" del PG OU. Aprobación provisional.
HAPOren berrikuspenaren prozedura hastea eta herritarrek parte-hartze programa onartzea.	6	Aprobación de la iniciación del procedimiento de revisión del PGOU y del programa de participación ciudadana.
HAPOko "Txalaka-Ergobia" 15 HEA Hiri	7	Aprobación definitiva del Plan Especial de

ESKU27be2767-bb46-4380-93bc-02467b37dda7



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Antolamenduko Plan Bereziaren behin-betiko onarpena.		ordenación urbana en la A.I.U. 15 "Txalaka-Ergobia del PGOU.
Adierazpen instituzionalaren proposamena: Astigarragan DBH-ko ikastetxea eraikitzeko premiari buruzkoa	8	Propuesta de Declaración institucional, sobre la necesidad de construir un centro de la ESO en Astigarraga
Adierazpen instituzionalaren proposamena: Martxoaren 8aren ingurukoa	9	Propuesta de Declaración institucional, sobre el 8 de Marzo
Adierazpen instituzionalaren proposamena: Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren 45. urteurrenaren ingurukoa	10	Propuesta de Declaración institucional, sobre el 45 aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD)
Informazio, galdera eta eskariak.	11	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2021ko urtarrilaren 26ko akta onartzea.

Aho batez onartu da.

1.- Aprobación del acta de 26 de enero de 2021.

Se aprueba por unanimidad.

2.- Lanpostuen zerrendaren zati bat aldatzea

Alkateak azaldu du lanpostua betetzen duen langileak jakitera eman duela erretiratzeko asmoa, eta ondorioz lanpostuen zerrenda aldatu behar dela, gero lan eskaintza publikoa onartu eta oposizio-lehiaketarako deialdia egiteko. Ondoren, Kudeaketa eta Pertsonal batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Udal honetako lanpostuen zerrenda aldatzea, liburutegiko laguntzailearen lanpostuari dagokionez, ondoren zehazten diren zehaztapenen arabera:*

Lanpostua: liburutegiko laguntzailea

Taldea: kultura

Lanaldia: 100%

Formazioa (titulazioa eta beste batzuk):

Batxiler edo teknikari titulua edota baliokidea; IT txartelak, maila aurreratua, internet eta Writer edo Microsoft word

Hizkuntz eskakizuna: 3

Derrigortasun data: 1993-12-30

Taldea: C1

Destino osagarria: 18.

Osagarri zehatza: 15.968,12 €.

Lanpostuaren izaera: Funtzionarioa

Beteta: 1, baina 2021ean baina 2021ean erretiro aurreratua hartzea aurreikusten da

2.- Modificación parcial de la relación de puestos de trabajo

El alcalde explica que la trabajadora que cubre el puesto ha comunicado su intención de jubilarse, por lo que debe modificarse la relación de puestos de trabajo, para posteriormente aprobar la oferta pública de trabajo y convocar el concurso-oposición. A continuación presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión y Personal:

Primero.- *Modificar la relación de puestos de este Ayuntamiento, en lo que se refiere al puesto de auxiliar de biblioteca, en los siguientes términos:*

Puesto: Auxiliar de biblioteca.

Grupo: Cultura.

Jornada: 100%

Formación (titulación y otros):

Bachiller, técnico o equivalente;

IT txartela, nivel avanzado, internet y Writer o Microsoft word.

Perfil lingüístico: 3

Fecha de preceptividad: 30-12-1993

Grupo: C1

Complemento de destino: 18

Complemento específico: 15.968,12 €

Características del puesto: Funcionario/a

Cubierto 1, pero se prevé su jubilación anticipada en el año 2021.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Hutsik: 0
Eszedentzian: 0
Hornidura: lehiaketa

Vacante: 0
Excedencia: 0
Provisión: Concurso

Segundo.- Erabaki hau 15 laneguneko epean jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuaz.

Bigarrena.- Someter dicho acuerdo a exposición pública por el plazo de 15 días hábiles insertando anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanidad**.

3.-Kirol instalazioetako kudeaketa kontratuaren luzapena.

Alkateak azaldu du kontratua 2011n esleitu zela bost urterako, baina luzatzeko aukerarekin (4 luzapen, bakoitza 5 urtekoa), eta esleipendunakados dagoela kontratua berriro ere luzatzearkin. Ondoren, Kirola, Jarduera fisikoa eta Gazteria batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.-Bost urtez luzatzea Mundarro Kirol Elkartearekin, 2011ko apirilaren 1ean, sinatu zen kirol-instalazioen kirol-kudeaketa integraturako zerbitzuen emakida-kontratua.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

3.- Prorroga del contrato de gestion de las instalaciones deportivas.

El alcalde informa que el contrato se adjudicó en 2011 por un periodo de cinco años con posibilidad de prórroga (4 prórrogas de 5 años cada), por 5 años) y que la adjudicataria está de acuerdo con la prórroga del contrato. A continuación presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de Deporte, Actividad física, y Juventud:

Único.-Prorrogar por cinco años, el contrato de concesión de servicios para la gestión integrar deportiva de las instalaciones deportivas, suscrito con Mundarro Kirol Elkartea el 1 de abril de 2011.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanidad**.

4.- Arrobitxulon hiri-igogailu bat jartzeko obren kontratazio-espeditzea.

Alkateak Kontratazio Mahaiko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

LEHENA.- CONSTRUCCIONES MOYUA SL enpresari 10 egun balioduneko epea ematea, loterako eskainitako prezioen edo kostuen maila baxua arrazoiz eta xehetasunez justifikatzeko eta xehakatzeko.

BIGARRENA.- Esleipena mahai ganean uztea, zehaztu arte CONSTRUCCIONES MOYUA SL enpresak aurkeztutako eskaintza eginezina dela nabarmenki baxua izateagatik.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

4.- Expediente de contratación de obras para instalar un ascensor urbano en Arrobitxulo.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Mesa de Contratación

PRIMERA.- Conceder a la empresa CONSTRUCCIONES MOYUA SL el plazo de 10 días hábiles para que justifique y desglose razonada y detalladamente el bajo nivel de los precios, o de costes que ha propuesto.

SEGUNDO.- Dejar sobre la mesa la adjudicación hasta determinar si la oferta presentada por la empresa CONSTRUCCIONES MOYUA SL resulta inviable por haber sido formulada en términos que la hacen anormalmente baja

TERCERO.- Notificar el presente acuerdo a todos los interesados en el procedimiento, y publicarlo en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

ESKU27be2767-bb46-4380-93bc-02467b37dda7



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

5.- Astigarragako HAPOko HEA 22ko "Ubarburu Zabalpena"*ren aldaketa puntuala. Behin behineko onarpena.

5.- Astigarragako HAPOko HEA 22ko "Ubarburu Zabalpena"*ren aldaketa puntuala. Behin behineko onarpena.

Alkateak azaldu du hasierako izaeraz onartu ondoren 45 eguez egon zela jendaurrean, eta alegazio bakarra aurkeztu zela. Jarraian, Hirigintza, Etxebizitza Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde informa que tras su aprobación inicial se sometió a información pública por 45 días, habiéndose presentado una única alegación. A continuación presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad

Lehena.- Ezestea Félix Elarre jaunak Ubarburu New S.L.ren izenean eta hura ordezkatzuz aurkeztutako alegazioa, 2021eko otsailaren 12ko txosten juridikoan oinarrituta.

Primero.- Desestimar la alegación formulada por Félix Elarre, en nombre y representación de Ubarburu New S.L. en base al informe jurídico de fecha 12 de febrero de 2021.

Bigarrena.- Behin-behinean onartzea "Ubarburu Zabalpena" 22 H.A.A.-ri buruzko HAPOren aldaketa-dokumentua.

Segundo.- Aprobar provisionalmente el Documento de Modificación del P.G.O.U referido al A.I.U 22 "Ubarburu Zabalpena".

Hirugarrena.- Hartutako erabakia Astigarragako Udalaren webgunean argitaratzea

Tercero.- Publicar el acuerdo adoptado en la página Web del Ayuntamiento de Astigarraga.

Laugarrena.- Behin-behinean onartutako dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea.

Cuarto.- Remitir el Documento aprobado provisionalmente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Bosgarrena.- Erabaki hau alegazioa aurkeztu dutenei jakinaraztea.

Quinto.- Notificar el presente acuerdo a los alegantes.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

6.- HAPOren berrikuspenaren prozedura hastea eta herritarrek parte-hartze programa onartzea.

6.- Aprobación de la iniciación del procedimiento de revisión del PGOU y del programa de participación ciudadana.

Alkateak azaldu du plan orokorra idatziko duen taldeak aurrez azaldu dituela dokumentu mota horren nondik norakoak, hori onartzeko prozedura, eta kasu honetarako partehartze programa. Ondoren, Hirigintza, Etxebizitza Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde explica que el equipo redactor del Plan General ha explicado previamente los pormenores de este tipo de documento, el procedimiento para su aprobación y el programa de participación para este caso. A continuación, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad

Lehenengoa.- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko espedientea hastea.

Primero.- Acordar la iniciación del expediente para la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko eta onartzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko programa onartzea.

Hirugarrena.- GAOn argitaratzea "Astigarragako HAPOn Herritarren Partaidetzarako Programaren laburpena", eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

Laugarrena.- Babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei eskatzea Udallerriaren antolamenduak errespetatu behar dituen arriskuei eta ingurumen-baldintzei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruzko informazioa

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

de Astigarraga.

Segundo.- Aprobare el programa de participación ciudadana del proceso de elaboración y aprobación del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.

Tercero.- Publicar en el BOG el "Resumen del Programa de Participación Ciudadana del PGOU de Astigarraga" y divulgarlo a través de las nuevas tecnologías de la información.

Cuarto.- Solicitar a los Departamentos de Gobierno Vasco y Diputación Foral con competencia en protección civil, medio ambiente, patrimonio cultural y medio natural la información sobre riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del medio natural que deban ser respetados por la ordenación del municipio

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

7.-HAPOko "Txalaka-Ergobia" 15 HEA Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren behin-betiko onarpena.

Alkateak Hirigintza, Etxebizitza Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Behin betiko onartzea GAESTOPAS SL enpresak aurkeztutako Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren "Txalaka-Ergobia" H.E.A 15eko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bategina, baldintza hauekin:

1.- Aurkeztuko den eraikuntza-proiektuan eta obrak gauzatzean, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2011ko urtarrilaren 11ko Ebazpenean ezarritakoa bete beharko da.

2.- Troiako bidea lokalen beheko aldean dauden aparkalekuekin lotzen duen eskailera kendu beharko da lagapen gisa.

3.- Urbanizazio-gastuen bigarren zatia (21.499,86 €) pabilioia lehen erabilera baimena emandakoan ordainduko da.

Bigarrena.- Aurreko erabakian aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan

7.- Aprobación definitiva del Plan Especial de ordenación urbana en la A.I.U. 15 "Txalaka-Ergobia del PGOU.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda, Medio ambiente y Movilidad:

Primero.- Aprobare definitivamente el Texto Refundido del Plan Especial de Ordenación Urbana del A.I.U. 15 "Txalaka-Ergobia" del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga presentado por GAESTOPAS SL con las siguientes condiciones:

1.- En el proyecto de edificación que se presente y en la ejecución de las obras, deberá de cumplirse lo establecido en la Resolución de 11 de enero de 2011 del Director de Administración Ambiental.

2.- Se deberá de suprimir como cesión, la escalera que comunica el camino de Troya con lo aparcamientos existentes en la parte baja de los locales.

3.- El abono de la segunda parte de los gastos de urbanización, que asciende a 21.499,86 €, se abonarán cuando se otorgue la primera utilización del pabellón.

Segundo.- Remitir el Plan Especial a que se



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

gordailutu dezan argitaratu baino lehen.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneraren erabakiaren eta hirigintza-arauen eduki osoa, eta adieraztea dagokion hirigintza-plana egin ondoren gordailutu dela erregistro horretan eta Planaren ingurumen-txosten estrategikoa 2021eko otsailaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (25. zk.) argitaratu zela.

Laugarrena.- Behin betiko onartzeko erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.

Bosgarrena.- Erabaki hau Gaestopas S.L.ri jakinaraztea

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación.

Tercero.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del plan urbanístico en el citado registro una vez efectuado y con referencia a la publicación del informe ambiental estratégico del Plan en el Boletín Oficial del País Vasco nº 25, de 4 de febrero de 2021

Cuarto.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico de Gipuzkoa.

Quinto.- Notificar este acuerdo a Gaestopas S.L

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

8.- Adierazpen instituzionalaren proposamena: Astigarragan DBH-ko ikastetxea eraikitzeko premiari buruzkoa

Alkateak azaldu du eguardian egindako bozeramaile batzordean aho batez onartu dela EH Bildu udal taldeak aurkeratutako testua, eta erabaki dela adierazpen instituzionaltzat onartzea. Jarraian testua aurkeztu du onartua izan dadin:

Astigarraren aspaldiko ametsa da bertako haurrek Derrigorrezko Hezkuntza herrian bertan jaso ahal izatea. Aspaldiko ametsa, gauzatzeko bidean dena, azken hilabeteotan Astigarragako Udalak eta Hezkuntza Sailak lankidetzan egin dugun bideari esker.

Duela 20 urte Astigarragak 3.500 biztanle zituen. Gaur 7.200 biztanle pasatxo. Bikoiztu egin da biztanleria eta Euskadiko jaiotze-tasarik altuenetakoa dugu. Udalak 2019an egindako biztanleriaren azterketa prospektiboaren arabera 2025erako 8.000 biztanlera iritsiko gara.

8.-Propuesta de Declaración institucional, sobre la necesidad de construir un centro de la ESO en Astigarraga

El alcalde comenta que en la Junta de Portavoces celebrada al mediodía se ha aprobado por unanimidad el texto presentado por el grupo municipal de EH Bildu y se ha decidido aprobarlo como declaración institucional. A continuación presenta el texto para su aprobación:

Hace tiempo que Astigarraga persigue el sueño de que sus niños y niñas puedan cursar sus estudios de Educación Secundaria Obligatoria en su propio municipio. Un sueño que está más cerca de convertirse en realidad gracias a la colaboración que en los últimos meses hemos mantenido el Ayuntamiento de Astigarraga y el Departamento de Educación.

Hace 20 años Astigarraga contaba con 3.500 habitantes. Hoy somos algo más de 7.200 habitantes. La población se ha duplicado y contamos con una de las mayores tasas de natalidad de Euskadi. El análisis prospectivo de la población realizado por el Ayuntamiento en el año 2019, nos sitúa en el año 2025 con 8.000 habitantes.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Duela 20 urte Astigarragako gaztetxoak DBHko ikasketak egitera Donostiara joaten ziren, Martutenera, Arantzazuko Ama Ikastolara. Ulgarrria da hori, 3.500 biztanleko herri batek DBHko ikastetxe bat edukitzeko behar adina ikasle ez duelako. Baina gaur 7.200 biztanle gara eta Astigarragako gaztetxoek DBHko ikasketak egitera Donostiara joan behar dute, Martutenera. Bistan da horrelako bilakaera izan duena udalerrri batek oinarritzko zerbitzuak eskaini behar dituela eta, zer esanik ez, derrigorrezko hezkuntza. Biztanle kopuru hori duten udalerrri gutxi izango dira Euskadin, baten bat baldin bada, DBHko ikastetxerik gabe.

2019ko uztailean Astigarragako Udalak Mendiandi-Aranibarreko orubea proposatu zion Hezkuntza Sailari DBHko ikastetxea eraikitzeko. Orubea malkartsua izanik eta azalera eta irisgarritasun aldetik egokia ote zen Hezkuntza Sailak zalantzak agertu zituen, Astigarragako Udalak lehen azterlan bat egin zuen, orube horrek azalera eta irisgarritasun aldetik dituen eragozpenak nola konpondu daitezkeen azaltzeko.

Horren ondotik, 2020ko urtarrilean, Hezkuntza Sailak ontzat eman zuen Mendiandi-Aranibarreko orubea, bertan DBHko ikastetxe bat eraikitzeko, orubea prestatzeko hainbat hiritartze lan egiteko baldintzarekin (bereziki, aireko linea elektrikoa lurperatzeko lanak eta zerbitzu eta instalazioak orubera eramateko lanak). Halaber, Hezkuntza Sailak Astigarragako udalari eskatu zion orube horretan DBHko ikastetxe baten espazioak antolatzeko proposamen bat lantzeko.

2020ko maiatzean Astigarragako Udalak aurreproiektu gisako lanketa aurkeztu zion Hezkuntza Sailari aipatutako orubean DBHko ikastetxe batek beharko lituzkeen espazioak (gelak, erabilera orokorreko eremuak eta abar) kokatuz eta irisgarritasun arazoei irtenbide zehatza emanez. 2020ko urrian egindako bileran, berriz, Hezkuntza Sailak ontzat eman zuen orubea, egiaztatutzat eman zuelako orubeak DBHko ikastetxe baten beharrak asetzeko ezaugarriak badituela. Aipatutako orubea Astigarragako Udalaren jabetzakoa da eta hiritartze lanak burutzen ari gara: linea elektrikoa lurperatzeko obra zibilaren lanak 2020ko abenduan hasi ziren eta 4 hilabeteko iraupena dute. Horren ondoren, Iberdrolak aireko linea kendu eta lurpetik pasako du. Hilabete gutxi barru, beraz, orubea prest egongo da ikastetxea eraikitzeko lanei ekin ahal izateko.

Hace 20 años los y las jóvenes de Astigarraga se desplazaban a cursar sus estudios de la ESO a Donostia, a Martutene, a la Ikastola Arantzazuko Ama. Esto es comprensible porque un pueblo de 3.500 habitantes no tiene alumnado suficiente para tener un centro de la ESO. Hoy, sin embargo, somos 7.200 habitantes y siguen teniendo que desplazarse a estudiar la ESO a Donostia, a Martutene. Un municipio que ha vivido una transformación de ese nivel debe adecuar y prestar los servicios básicos, entre los que se encuentra, sin duda alguna, la educación obligatoria. En Euskadi habrá pocos municipios con ese número de habitantes que no dispongan de un centro de la ESO, si es que hay alguno.

En julio de 2019 el Ayuntamiento de Astigarraga propuso al Departamento de Educación el solar de Mendiandi-Aranibar para la construcción del centro de la ESO. Ante las dudas del Departamento de Educación sobre su idoneidad en cuanto a la superficie y a la accesibilidad, el Ayuntamiento de Astigarraga realizó un primer estudio sobre cómo solventar los inconvenientes del solar en cuanto a ambas cuestiones.

Posteriormente, en enero de 2020, el Departamento de Educación dio el visto bueno al solar de Mendiandi-Aranibar para la construcción de un centro escolar de la ESO con la condición de realizar diversas obras de urbanización en el solar (en especial, el soterramiento de la línea eléctrica aérea y el traslado de los servicios e instalaciones al solar). Asimismo, el Departamento de Educación solicitó al Ayuntamiento de Astigarraga la elaboración de una propuesta para la ordenación de los espacios de un centro de la ESO en dicho solar.

En mayo de 2020 el Ayuntamiento de Astigarraga presentó al Departamento de Educación un anteproyecto que sitúa en el citado solar los espacios que necesita un centro de la ESO (aulas, zonas de uso general, etc.) y resuelve los problemas de accesibilidad. En la reunión celebrada en octubre de 2020, el Departamento de Educación dio el visto bueno al solar por considerar acreditado que reúne las características necesarias para satisfacer las necesidades de un centro de la ESO.

El citado solar es propiedad del Ayuntamiento de Astigarraga y se están ejecutando las obras de urbanización correspondientes a la obra civil del soterramiento de la línea eléctrica, obras iniciadas en diciembre de 2020 y que tienen una duración de 4 meses. Posteriormente, Iberdrola retirará la línea



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Hezkuntza Sailari dagokio, batetik, orube horretan ikastetxea eraiki ahal izateko exekuzio proiektua idaztea eta, bestetik, obrak egitea. Exekuzio proiektua idatzi eta obrak egiteko epea luzea izan daiteke oso eta, beraz, bidezkoa iruditzen zaigu urrats horiek lehenbailehen hastea, nahiz eta orubearen lagapena formalizatu gabe egon.

Horrenbestez, Astigarragako Udaleko udalbatzakondoko adierazpen instituzionala onartu du:

1. Mendaundi-Aranibarreko orubea udal jabetzakoa da eta egin beharreko hiritartze lanak egiten ari da Udala, hilabete gutxi barru amaituta egongo direnak. Udalak erabateko konpromisoa agertzen du lan horiek amaitu eta orubea Eusko Jaurlaritzari lagatzeko, jarritako baldintzak betez.

2. Astigarragako Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio Astigarragan DBHko ikastetxea eraikitzeko Mendaundi-Aranibarreko orubea Hezkuntza Sailari lagatzeko hitzarmena prestatu eta dagozkion izapideak abiaraz ditzala.

3. Astigarragako Udalak Hezkuntza Sailari eskatzen dio "Hezkuntza Azpiegituren Plana 2019-2023" inbertsio planean Astigarragako DBHko ikastetxea barne biltzeko.

4. Astigarragako Udalak Hezkuntza Sailari eskatzen dio Astigarragako DBHko ikastetxearen exekuzio proiektua idazteko espedientea martxan jartzeko.

Azkenik, Astigarragako Udalak eskatzen du adierazpen honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Batzordeari emateko.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta bere poza adierazi du adierazpen instituzionaltzat onartzeagatik, eta gaineratu du bere taldeak DBHrekiko konpromisoa duela.

Mikel zinegotziak adierazi du zenbait kudeaketa egin dituela PSOEko legebiltzar-taldearen aurrean, eta eskaera sailburuari helarazi zaiola. Gaineratu du

aérea y la soterrará. En unos meses, por tanto, el solar estará listo para poder iniciar las obras de construcción del centro.

Corresponde al Departamento de Educación, por un lado, la redacción del proyecto de ejecución y, por otro, la ejecución de las obras de construcción del centro en dicho solar. El plazo de redacción del proyecto de ejecución y de ejecución de las obras puede ser muy largo, por lo que consideramos oportuno iniciar estos trámites a la mayor brevedad, aunque no se haya formalizado la cesión del solar.

En consecuencia, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga aprueba, la siguiente declaración institucional:

1. El solar de Mendaundi-Aranibar es de propiedad municipal y el Ayuntamiento está ejecutando las obras de urbanización necesarias que estarán finalizadas en pocos meses. El Ayuntamiento manifiesta su compromiso de culminar las obras y ceder el solar al Gobierno Vasco en los términos establecidos.

2. El Ayuntamiento de Astigarraga solicita al Departamento de Educación del Gobierno Vasco la preparación de un convenio para la cesión al Departamento de Educación del solar de Mendaundi-Aranibar para la construcción del centro de la ESO en Astigarraga y la iniciación de los trámites oportunos.

3. El Ayuntamiento de Astigarraga insta al Departamento de Educación a incluir en el plan de inversiones "Plan de Infraestructuras Educativas 2019-2023" el centro de la ESO de Astigarraga.

4. El Ayuntamiento de Astigarraga solicita al Departamento de Educación el inicio del expediente de redacción del proyecto de ejecución del centro de la ESO de Astigarraga.

Por último, el Ayuntamiento de Astigarraga solicita que se informe de esta declaración a la Comisión de Educación del Gobierno Vasco.

La Concejala, Nerea, toma la palabra y manifiesta su satisfacción por aprobarse como declaración institucional y añade que su equipo tiene un compromiso con la ESO.

El concejal Mikel señala que ha llevado a cabo



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

plan estrategikoa aldatzeko eskatu dela, eta hori ezin bada egin, eskatu dutela lanean hastea (obra-proiektua idaztea...), hurrengo plana onartzen denerako itxaron behar ez izateko.

Bukatzeko alkateak adierazi du DBH plataformakoekin bilera egin dutela, eta aurreratu dietela testu hau hezkuntza sailara bidalitako dela, baita agerraldia eskatuko dela ere.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua **aho batez onartu** da.

algunas gestiones ante el grupo parlamentario del PSOE, y que se le ha hecho llegar la petición al consejero. Añade que se ha pedido modificar el plan estratégico, y de no poder hacerse, se vaya trabajando (redactar proyecto de obras...), para cuando se apruebe el siguiente no haya que esperar.

Finaliza el Sr. Alcalde manifestando que se ha mantenido una reunión con los integrantes de la plataforma de ESO, adelantándoles que este texto se remitirá al Departamento de Educación y que se solicitará una comparecencia.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el texto por **unanimidad**.

9.- Adierazpen instituzionalaren proposamena: Martxoaren 8aren ingurukoa

Alkateak azaldu du eguardian egindako bozeramaile batzordean ere aho batez onartu dela EH Bildu udal taldeak aurkeratutako testu hau, eta erabaki dela adierazpen instituzionaltzat onartzea. Jarraian testua aurkeztu du onartua izan dadin:

Urtebete pasa da COVID-19a azaldu eta gure bizitzeko modua irauli zuenetik. Birusaren agerrera krisi multidimentsional eta sistemiko bat ekarri digu, aurrekaririk gabekoa, lehendik zetozen beste krisi batzuekin gurutzatu dena.

Inoiz baino gehiago, bizitza duin eta justuaren aldeko apustua egiteko unea da. Horrek erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan begirada feminista izatea eskatzen du, dagoeneko egiaztatuta baitago emakumeek gizonetako baino ondorio latzagoak jasan dituztela krisi global honetan. Daukagun erantzukizun publiko handiari esfera globaletik hasita tokian tokiko eremuetaraino erantzun behar diogu. Hori premisa feministetatik egin behar da, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.*

Sustapen honen baitan kokatzen da Astigarragako Udalak sustengatu duen Emakumeon Etxearen proiektua. Eragile sozial honen helburu nagusia gizarte parekide bat lortzeko pausoak ematea eta emakumeon* ahalduz bultzatzea da.*

Ekimen honi esker, herriko emakume zein gizonen feminismoaren inguruan ikasteko, prestakuntza jasotzeko, harremanak sartzeko, eztabaida eta*

9.- Propuesta de Declaración institucional, sobre el 8 de Marzo

El alcalde comenta que en la Junta de Portavoces celebrada al mediodía también se ha aprobado por unanimidad este texto presentado por el grupo municipal de EH Bildu y se ha acordado aprobarlo como declaración institucional. A continuación presenta el texto para su aprobación:

Hace un año de la aparición de la COVID-19, pandemia que ha dado un vuelco a nuestras vidas. La pandemia del virus ha supuesto una crisis multidimensional y sistémica sin precedentes que se ha otras crisis preexistentes.

Es el momento de apostar, más que nunca, por una vida digna y justa. Esto requiere una mirada feminista en todas las políticas que impulsamos desde las instituciones, ya que se ha constatado que las mujeres han sufrido más consecuencias que los hombres en esta crisis global. Debemos responder a la gran responsabilidad pública que tenemos desde la esfera global hasta los ámbitos locales. Esto debe hacerse desde premisas feministas, elaborando planes y programas transformadores, atendiendo a las emergencias y posibilitando todos los recursos necesarios.*

Dentro de esta línea de actuación se enmarca el proyecto Emakumeon Etxea, proyecto apoyado por el Ayuntamiento de Astigarraga. El principal objetivo de esta iniciativa es dar pasos hacia una sociedad igualitaria e impulsar el empoderamiento de las mujeres*.*

*Esta iniciativa permitirá que tanto las mujeres**

ESKU27be2767-bb46-4380-93bc-02467b37dda7



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

gogoeta feministak pizteko eta aholkularitza juridikoa/psikologikoa/sexuala... jasotzeko aukera izango dute. Zalantzarik gabe, Emakumeon Etxea giltzarri izango da Astigarraga herri feministagoa bihurtzeko bidean.*

lido horretatik, martxoaren 8ak udal honek politika publiko-komunitario feministekiko duen konpromiso berresteko balio behar du, krisiaren ondoriozko larrialdiei erantzuteko eta erdigunean bizitza zainduko duen gizarte-eredu baten oinarriak jartzeko.

Hori dela eta, Astigarragako Udalak honako konpromiso hauek hartzea erabaki du:

1. Kolektibo zaurgarrien beharren eta COVID-19aren eraginaren azterketa feminista egitea, eta horiei aurre egiteko premiazko neurriak abian jartzea.

2. Zaintzei eta egungo zaintza-ereduari buruzko eztabaida guneak bultzatzea, mugimendu feminista eta emakumeen elkarte eta kolektibo zabalaren parte hartzearekin.

3. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren eredua eta funtzionamendua egokitzea/berrantolatzea edota zabaltzea, identifikatutako beharrei erantzuteko eta lan-baldintzak duintzeko asmoz.

4. Dauden zaintza-zerbitzuak egokitzea, zerbitzu edo baliabide berriak sustatzea indarkeria matxistari aurre egiteko, batez ere krisialdi honetan areagotu diren hutsuneei aurre egiteko.

5. Etxeko langileen egoera identifikatzea eta, eta haien lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko programa integralak abian jartzea.

6. Hainbat sektoretako zaintzaileen arteko topaketarako espazioak sustatzea, elkar babesa, prestakuntza eta artikulazio politikorako.

7. Gizarte-bazterketaren errealitateari aurre egiteko dauden zerbitzuak eta baliabideak egokitzea edota baliabide berriak sustatzea, bereziki, eta genero ikuspegi batetik.

8. Astigarragako Emakumeon Etxeari behar adina baliabide eskaintzea eta bermatzea. Emakume, nerabe eta neskatuen ahalduntze*

como los hombres del municipio puedan aprender sobre el feminismo, formarse, tejer relaciones, suscitar debates y reflexiones feministas y recibir asesoramiento jurídico/psicológico/sexual... Sin duda, Emakumeon Etxea será clave en la transformación de Astigarraga en un pueblo más feminista.*

En este sentido, el 8 de marzo ha de servir para reafirmar el compromiso de este Ayuntamiento con las políticas público-comunitarias feministas para dar respuesta a las emergencias derivadas de la crisis y sentar las bases de un modelo social que sitúe la vida y el cuidado en el centro.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Astigarraga acuerda asumir los siguientes compromisos:

1. Realizar un análisis feminista de las necesidades de los colectivos más vulnerables y de la incidencia de la COVID-19 y poner en marcha medidas urgentes para hacerles frente.

2. Impulsar espacios de debate sobre los cuidados y el modelo de cuidado actual, con la participación del movimiento feminista y de las asociaciones y colectivos de mujeres.

3. Adaptar/reorganizar y/o ampliar el modelo y funcionamiento del servicio de ayuda a domicilio para dar respuesta a las necesidades identificadas y dignificar las condiciones de trabajo.

4. Adecuar los servicios de cuidado existentes, promover nuevos servicios o recursos para hacer frente a la violencia machista, especialmente a las deficiencias que se han agudizado en esta crisis.

5. Identificar la situación de las personas trabajadoras del hogar y poner en marcha programas integrales para mejorar sus condiciones de trabajo y vida.

6. Promover espacios de encuentro entre personas cuidadoras de diferentes sectores para el apoyo mutuo, la formación y la articulación política.

7. Adecuar los servicios y recursos existentes para hacer frente a la realidad de la exclusión social o promover nuevos recursos, especialmente, y desde una perspectiva de género.

ESKU27be2767-bb46-4380-93bc-02467b37dda7



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

individual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, elkarte honekin elkarlanean.

9. Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.

10. Harrera publiko-komunitarioko programak sustatzea etorri berri diren pertsonentzat, kolektibo zaurgarrienei arreta berezia eskainita, genero ikuspegi batetik.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bere taldeak beste testu bat aurkeztu duela, baina ikusirik antzerakoa zela eta EHBildurena gainera Astigarragara egokitzen zela, beraiena kendu eta hau babestuko dutela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua **aho batez onartu** da.

8. Ofrecer y garantizar los recursos necesarios al proyecto Emakumeon Etxea de Astigarraga. Impulsar acciones para el empoderamiento individual y colectivo de mujeres, adolescentes y niñas, en colaboración con esta asociación.*

9. Realizar campañas de comunicación que reconozcan el valor social y político de los cuidados, prestando especial atención a la corresponsabilidad y visibilizando realidades como las de las trabajadoras del hogar.

10. Promover programas de acogida público-comunitaria para personas recién llegadas, con especial atención a los colectivos más vulnerables desde una perspectiva de género.

La Concejala, Nerea, toma la palabra para manifestar que su grupo ha presentado otro texto, pero viendo que era similar y que la de EHBildu además se adapta a Astigarraga, van a retirar el suyo y a aprobar éste.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el texto por **unanimidad**.

10.- Adierazpen instituzionalaren proposamena: Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren 45. urteurrenaren ingurukoa

Alkateak azaldu du eguardian egindako bozeramaile batzordean ere aho batez onartu dela EH Bildu udal taldeak aurkeratutako testu hau, eta erabaki dela adierazpen instituzionaltzat onartzea. Jarraian testua aurkeztu du onartua izan dadin:

Otsailaren 27a oso data esanguratsua da saharar herriarentzat, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren urteurrena baita. Aurten, Espainiak Mendebaldeko Sahara Marokori eta Mauritaniari era lotsagarrian entregatu eta lurraldea utzi eta hurrengo egunean Bir Lehluko kanpamentuan ospatutako aldarrikapen horren 45. urteurrena ospatzen da.

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpamentuetan dauden herritarrak elikagai eta osasun gabezia larriak jasaten ari dira mugak ixtearen ondorioz, Covid-19ren pandemiaren ondorioz, nazioarteko eta nazioarteko laguntza sartzeari zailtasunak baitu, desnutrizio- eta anemia-arazo larriak eraginez.

10.- Propuesta de Declaración institucional, sobre el 45 aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD)

El alcalde comenta que en la Junta de Portavoces celebrada al mediodía también se ha aprobado por unanimidad este texto presentado por el grupo municipal de EH Bildu y se ha acordado aprobarlo como declaración institucional. A continuación presenta el texto para su aprobación:

El 27 de febrero es una fecha muy significativa para el pueblo saharauí, en tanto que es el aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD). Este año se conmemora el 45 aniversario de esta proclamación, que tuvo lugar en el campamento de Bir Lehlu, justo un día después de que España entregara, vergonzosamente, el Sahara Occidental a Marruecos y Mauritania y abandonara el territorio.

La población saharauí refugiada en los campamentos de Tinduf, Argelia, está sufriendo graves carencias alimentarias y sanitarias a consecuencia del cierre de fronteras, debido a la pandemia de la Covid-19 que dificulta la entrada de



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Gainera, saharrek eta Mendebaldeko Saharako Lurralde okupatuetan bizi diren ekintzaileek egunero jasaten duten jazarpena eta giza eskubideen urraketa areagotu egin da Marokoko agintarien aldetik, modu baketsuan agertu direlako eta autodeterminaziorako eta askatasunean bizitzeko eskubideak aldarrikatu dituztelako, 45 urteko erresistentzia eta borroka baketsuaren ondoren.

Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udalak honakoa adierazten du:

1. Ospakizun garrantzitsu hau dela eta, Astigarragako Udalak herri honekiko gure gertutasun eta elkartasuna adierazi nahi du. Orain, inoiz baino gehiago, herri honek gure babes behar du, 2020ko azaroaren 13an gerra-egoera deklaratu ondoren, Marokoko armadak Guerguerat-eko legez kanpoko arrakalan su-etena urratzearen ondorioz bizi duen egoera larriaren aurrean.

2. Giza eskubideen babesaz eta justiziaz kezkatuta, Astigarragako Udalak bat egiten du Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 45. urteurrenaren ospakizunean eta, beraz, babes hori erakusteko, otsailaren 27an, Saharako bandera udaletxeko balkoian zintzilikatu eta adierazpen honen berri emango du bere webgunean eta sare sozialetan.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua **aho batez onartu** da.

11.- - Informazio, galdera eta eskariak.

a.- COVID-19a

Alkateak pandemiari buruzko azken datuen berri eman du, eta adierazi du azken 10 egunetan intzidentzia-tasak behera egin duela, baina ezin dela pandemia amaitutzat eman eta prebentzio-neurriak betetzen jarraitu behar dela.

b.- Urumea Berriko bizilagunen kezka

Nerea zinegotziak adierazi du Urumea berriko bizilagunak kezkatuta daudela ibaiertzean eta

la ayuda internacional y nacional provocando graves problemas de desnutrición y anemia.

Además, se ha intensificado el acoso y la vulneración de los derechos humanos que sufre, a diario, la población saharauí y los activistas que viven en los Territorios Ocupados del Sahara Occidental, por parte de las autoridades marroquíes, por el hecho de manifestarse pacíficamente y reclamar su derecho a la autodeterminación y a vivir en libertad después de 45 años de resistencia y lucha pacífica.

Por todo ello, El pleno del Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta lo siguiente:

1. El Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta su profundo afecto hacia este pueblo. Ahora más que nunca, necesita nuestro apoyo ante la grave situación que atraviesa, tras la declaración del estado de guerra, el pasado 13 de noviembre de 2020, a consecuencia de la violación del alto el fuego por parte del ejército marroquí en la brecha legal del Guerguerat.

2. Preocupado por los Derechos Humanos y la Justicia, el Ayuntamiento de Astigarraga se une a la conmemoración del 45 aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática, mediante el gesto simbólico de colgar la bandera saharauí en el balcón del Ayuntamiento el próximo 27 de febrero e informando de esta declaración en su web y en sus redes sociales.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el texto por **unanimidad**.

11.- Información, ruegos y preguntas

a.- COVID-19

El alcalde informa de los últimos datos de pandemia, señala que en los últimos 10 días la tasa de incidencia ha disminuido, pero no se puede dar por terminada la pandemia y hay que seguir cumpliendo las medidas preventivas.

b.- Preocupación del vecindario de Urumea berri

La Concejala Nerea manifiesta la preocupación del vecindario de Urumea Berri por la basura



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

ibaian bertan dagoen zaborragatik, eta galdetu du ea udaletxera bertaratu diren gaiaren inguruan hitz egiteko.

Alkateak azaldu du elkarte bezala eratuta ez egon arren, bertako bizilagun batzurekin bilera egin duela, eta horiek gai horretaz aparte mahai gainean jarri dutela zaretaren inguruan duten kezka (errepidearena, kaleko jendearena...). Gaineratu du, hondakinen jatorria ez dela identifikatu, eta proiektu bat aurkeztu dela Aldundian, 2-3 asteetan bolondres sare batek ibaia garbitzeko; eta errepideak eragindako zaratari dagokion, Aldundiarekin hitz egin dela zarata neurketa egiteko aukeraren ingurua.

existente en la orilla y en el propio río y pregunta si han acudido al Ayuntamiento para tratar el tema.

El alcalde explica que aun no estando constituida como asociación, se ha reunido con algunos vecinos y vecinas de la zona, quienes además han puesto sobre la mesa su preocupación por el ruido (de la carretera, de la gente de la calle ...). Añade que no se ha identificado el origen de los residuos y que se ha presentado un proyecto en Diputación para que una red de voluntarios limpie el río en 2-3 semanas, y que en relación al ruido, generado por la carretera se ha hablado con la Diputación sobre la posibilidad de realizar mediciones de ruido.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2021eko otsailaren 23an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria

